

Erref/Ref:	2023/38F/BASES
Proz/Proc:	Elaboración, Gestión de la Convocatoria y Concesión de Subvenciones
EUSKARA ZERBITZUA	

Diru-laguntzei buruzko araudia aintzat hartuta,

Considerando la normativa en materia de Subvenciones,

Leioako Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra aintzat hartuta

Considerando la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Leioa,

Leioako Udaleko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa eta horri dagokion kreditua egokia eta nahikoa dela aintzat hartuta,

Considerando el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Leioa y la existencia de crédito adecuado y suficiente al respecto,

Euskara Zerbitzuaren txostena aintzat hartuta, ebazpen honen zio moduan baliatu dena, dekretua proposatutakoarekin bat dator eta,

Considerando el informe del Servicio de Euskera, que sirve de motivación a la presente resolución, la cual adopta el acuerdo en el sentido en aquél propuesto,

Apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1 f) artikulua eta Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 10.4 artikulua, besteak beste, ezarritako eskuduntzak erabiliz, honako hau

En ejercicio de la competencia establecida entre otros por los arts. 21.1 f) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de Bases de Régimen Local, y 10.4 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones

Udalaren esku-hartzeak ikuskatu du proposamena, data honetan: 08/03/2023 , erreferentzia-zk.: 2023/661 eta emaitza:
Fiscalización de conformidad.

La propuesta ha sido fiscalizada por la intervención municipal en fecha 08/03/2023, con nº de referencia 2023/661 y con resultado Fiscalización de conformidad.

Apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1 f) artikulua eta Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 10.4 artikulua, besteak beste, ezarritako eskuduntzak erabiliz, honako hau **XEDATZEN DUT:**

En ejercicio de la competencia establecida entre otros por los arts. 21.1 f) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de Bases de Régimen Local, y 10.4 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones, **DISPONGO:**

Lehenik.- 2022-2023 ikasturtean euskara ikasteko diru-laguntzen deialdia eta berariazko oinarri arautzaileak onartzea, eranskinean islatzen den edukiarekin baita horretarako espedienteetan dauden eskaera-ereduak ere.

Bigarrenik.- Dagokion arloei ebazpenaren berri ematea, Egoitza Elektronikoa eta Gardentasunaren Atarian argitaratzeko, eta nahitaezko informazioa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalera bidaltzea.

Hirugarrenik.- Ebazpenaren berri eman, Kontuhartzailetza eta Kontabilitate sailera.

Primero.- Aprobar la convocatoria y las bases específicas reguladoras de las subvenciones para favorecer el estudio del euskera durante el curso 2022-2023 con el contenido que se transcribe en el anexo, así como los formularios al efecto que constan en el expediente.

Segundo.- Dar cuenta de la resolución a las áreas para la publicación oportuna en Sede Electrónica, y Portal de Transparencia y remitir la información preceptiva a la Base de Datos Nacional de Subvenciones.

Tercero.- Dar cuenta de la resolución al área de Intervención y Contabilidad.

LEIOAKO UDALA EUSKARA IKASTEN LAGUNTZEKO DIRULAGUNTZETARAKO OINARRIAK ETA DEIALDIA 2022-2023 IKASTURTEA	AYUNTAMIENTO DE LEIOA CONVOCATORIA DE AYUDAS ECONÓMICAS PARA FAVORECER EL APRENDIZAJE DEL EUSKERA CURSO 2022-2023
1. artikulua.- DEIALDIAREN HELBURU ETA XEDEA:	Artículo 1.- OBJETO Y FINALIDAD DE LA CONVOCATORIA:
Deialdi honen xedea zera da, Leioako Udalak euskara ikasten edo hobetzen ari diren udalerriko bizilagunei eman behar dizkien dirulaguntzak emateko irizpideak ezartzea. Dirulaguntzak urtean behin emango dira eta horien bidez, ahal dela, Leioan erroldatuek, gazteek, elkarteetako partaideek, Leioan bizi diren familieek, eta oro har, baliabide ekonomiko urriak dituzten bizilagunek izango dute euskara ikasteko aukera.	Constituye el objeto de la presente convocatoria establecer los criterios para la concesión de las ayudas económicas por parte del Ayuntamiento de Leioa a los vecinos/as del municipio que estén aprendiendo o perfeccionando el euskera. Las ayudas económicas se otorgarán anualmente y procurarán favorecer que los miembros de asociaciones de Leioa, las familias asentadas en el municipio y, en general, los vecinos con pocos recursos económicos, puedan acceder al estudio del euskera.
2. artikulua.- ONURADUNAK:	Artículo 2.- PERSONAS BENEFICIARIAS:
Eskatzaileek bete beharreko baldintzak eta dirulaguntza kopuruak 1. Leioan erroldatuta egotea diruz laguntzea eskatzen den ikastaroa hasi baino 6 hilabete lehenago eta berau bukatu arte.	Requisitos de los y las solicitantes y cantidades subvencionadas 1. Estar empadronados en Leioa desde al menos 6 meses antes de comenzar el curso por el que se solicita la ayuda y hasta la finalización del mismo.

2. 16 urte beteta izatea dirulaguntzaren helburua den ikastaroa hastean. 3. Zerga betebeharrak eta gizarte segurantzari dagozkionak beteta izan beharko dituzte eskatzaileek. 4. Diruz lagundutako ikastaroek honako baldintza hauek bete beharko dituzte: a) HABEk homologatutako ikastaroak izango dira. b) Eskatzailea ezin izango da ikastaroan baja izan. Gainera, dena delako ikastaroan emandako orduen % 85eko asistentzia gainditu beharko du. c) Ikastaroak Leioako Mastitxu Udal Euskaltegian edo Leioako Lamia AEK euskaltegian egin behar dira. Salbuespena egingo da dirulaguntzaren xedea den ikastaro mota eta ordutegia ez badute eskaintzen aipatutako euskaltegi biek, edo eskaintza ere eskatzailearentzako plazarik geratuko ez balitz. d) 2022ko udako ikastaroak, hau da, 2022ko ekainetik irailera ematen direnak, ikasturtean egindakoaren osagarri bezala hartuko dira eta bakarrik diruz lagunduko dira eskatzaileak 2022ko urritik eta 2023ko ekainaren bitartean laguntza hauetarako baldintzak betetzen dituen ikastarorik egin badu. Ikastaro hauek dirulaguntza jasoko lukete kreditu nahikorik balego 2022ko urria eta 2023ko ekainaren bitartean egindako ikastaroei legokiekeen laguntza ordaindu ondoren. 5. Dirulaguntzaren zenbatekoa honelakoa izango da kolektiboen arabera: a) Leioan erroldatutakoentzako dirulaguntza, ordaindutakoaren %60raino. b) Araudi honen I. ERANSKINean ezartzen diren dirusarreretara heltzen ez direnek ordaindutakoaren %100eraino jasoko dute. Familia unitate bezala ulertuko da etxebizitzan bizi diren guztiek osatutakoa.	2. Tener 16 años cumplidos al comenzar el curso objeto de la ayuda. 3. Los y las solicitantes deberán estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la seguridad social. 4. En cuanto a los estudios que se cursen para tener derecho al otorgamiento de ayuda económica, estos deberán reunir las siguientes condiciones: a) Ser cursos homologados por HABE. b) El o la solicitante no podrá causar baja en el curso y su asistencia real deberá superar el 85% de las horas impartidas en el curso correspondiente. c) Los cursos deberán ser realizados en Mastitxu Udal Euskaltegia de Leioa o Lamia AEK de Leioa. Se hará excepción de esta norma si el curso objeto de la subvención no fuera ofrecido en la misma modalidad y a la misma hora por ninguno de los citados euskaltegis, o en caso de hacerlo, si no quedaran plazas para el solicitante. d) Los cursos de verano de 2022, es decir, los cursados entre junio y septiembre del 2023, se considerarán como complementarios y solo serán subvencionables cuando el solicitante haya realizado otro curso que cumpla las condiciones de estas ayudas durante el periodo comprendido entre octubre de 2022 y junio de 2023. Estos cursos sólo recibirán ayuda en caso de que haya crédito disponible tras pagar las ayudas correspondientes a los cursos realizados entre octubre del 2022 y junio de 2023. 5. La cuantía de las ayudas será la siguiente para modalidad: a) Ayuda de hasta el 60% del importe pagado para las y los empadronados en Leioa. b) Ayuda de hasta el 100% del importe pagado para las personas solicitantes que no alcancen los ingresos establecidos en el ANEXO I del presente reglamento. Se entenderá por unidad familiar la formada por todas las personas que convivan en el domicilio de la persona solicitante.
3. artikulua.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKUA; MODUA ETA EPEA:	Artículo 3.- LUGAR, FORMA Y PLAZO DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES:
<i>LEKUA</i>	<i>LUGAR</i>
Eskabide-orriak Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ eta Gaztelubide), bai eta urriaren 1eko 39/2015 Legean (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena) prestatutako erregistroetan ere aurkeztu behar dira, horretarako Udalak jarriko	Las solicitudes se presentarán en los Servicios de Atención Ciudadana municipales (SAC Casa Consistorial y Gaztelubide), pudiéndose presentar igualmente en los registros habilitados a tal efecto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento

dituen inprimakietan, https://udaletxean.leioa.eus webgunean eskuragarri. Egoitza elektronikoan aurkeztu behar dute horretarako legeak behartzen dituen pertsonak edo entitateek.	Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en los impresos que a tal efecto dispondrá el Ayuntamiento, y que se encuentran disponibles en https://udaletxean.leioa.eus. En el caso de obligados legales a relacionarse electrónicamente con la administración, la presentación se hará en Sede Electrónica.
<i>ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA</i>	<i>DOCUMENTACIÓN A APORTAR CON LA SOLICITUD</i>
Diru-laguntza jaso dezaketen ikastaro adina eskabide egin beharko dira. Eskatzaileek ondoko dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte: - Euskara ikasteko dirulaguntzen eskabide inprimakia (EZ1 eredu), behar bezala beteta. - Euskaltegiko ziurtagiria, dirulaguntza eskatzen den edo diren ikastaroen gainekoa eta honako hauek jasotzen dituenak: - Ikastaro mota (aurrez-aurrekoa edo autoikaskuntza) - Hasiera data - Bukaera data - Maila - Ordutegia - Matrikularen zenbatekoa - Ikasleak ordaindutako kopurua. - Mastitxu Euskaltegiko eta Lamia AEKko ikasleek ez dute euskaltegiko ziurtagirik aurkeztu behar datuak Euskara Zerbitzuak zuzenean eskatuko baitzikio euskaltegiei. - Eskatzailea Herri Administrazioako langilea edo funtzionarioa bada, eta 2. artikuluko 5 puntuko kasuetako batengatik eskatu badu laguntza, zein Administrazioarako lan egiten duen adierazi beharko du, eta dirulaguntzaren eskabidearen xede den ikastarorako beste laguntza ekonomikorik jaso ez duela adierazten duen egiaztagiria aurkeztu beharko du. - Eska dakiokkeen bestelako informazioa aurkeztu beharko dute Leioako kontu-hartzailetza zerbitzuak eskatuta, dirulaguntzen xedearen ikusketa-lanetan diharduenean.	Deberán cursarse tantas solicitudes como cursos susceptibles de recibir la subvención se hayan realizado. La documentación adjunta que se debe acompañar a la solicitud es la siguiente: - Impreso de solicitud de ayudas para estudiar euskera (modelo EZ1) debidamente cumplimentado. - Certificado del euskaltegi referido al curso o cursos sobre los que se solicita la ayuda que especifique lo siguiente: - Tipo de curso (presencial o autoaprendizaje) - Fecha de comienzo - Fecha de finalización - Nivel - Horario - Precio de la matrícula - Cantidad abonada por quien haya realizado el curso. - Las alumnas y alumnos de Mastitxu Euskaltegia y de Lamia AEK no tendrán que presentar el certificado anterior y los datos serán solicitados directamente al euskaltegi por el Servicio de Euskera - En el supuesto de que la persona solicitante fuera trabajadora de la Administración Pública o funcionaria, y haya solicitado la ayuda por alguno de los supuestos del punto 5 del artículo 2, deberá indicar para qué Administración trabaja y presentar un certificado que indique que no ha percibido ninguna otra ayuda económica por el curso para el cual solicita subvención. - Cuanta documentación sea requerida por el Servicio de Intervención del Ayuntamiento de Leioa en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las ayudas.

ADMINISTRATIOAREN ESKU DAGOEN BALDINTZAK BETETZEN DIRELA EGLAZTATZEN DUEN INFORMAZIOA	INFORMACIÓN ACREDITATIVA DEL CUMPLIMIENTO DE REQUISITOS EN PODER DE LA ADMINISTRACIÓN
Aurkeztu beharreko dokumentuak Leioako Udalak dituenean, ez da beharrezkoa izango berriz aurkeztea, betiere zein sailetan eta noiz aurkeztu ziren zehazten bada, bost urte baino gehiago igaro ez badira agiriok aurkeztu zireneko prozedura amaitu zenetik eta aldaketarik izan ez badituzte.	Cuando los documentos que hay que presentar estuvieran en poder del Ayuntamiento de Leioa, no será necesario volver a presentarlos, siempre y cuando se haga constar la fecha y la dependencia en la que fueron entregados, que no haya transcurrido más de cinco años desde la finalización del procedimiento al que correspondan, y que los mismos no hayan sufrido modificación alguna.
Leioako Udalak, eskuragarri dauden datu-bitartekaritzako sistemen bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu Administrazioaren esku dauden interesdunen datuei buruz, bai eta dirulaguntza administratiboki izapidetzeko eskatzen den beste edozeini buruz ere, horretarako inprimakietan adierazitakoaren arabera. Administrazio publikoen arteko datu-bitartekaritzarako oinarria honako hauetan zehazten da: pertsona fisikoen babesari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6. artikuluan eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazioek egin dituen dokumentuak ez aurkezteko, bai eta beste edozein administrazioek egindakoak ere. Hori dela eta, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak dituzten dokumentuak edo ziurtagiriak eskatzeari utziko zaio, betiere interesdunak [edo haren ordezkariak] datu horiek erabiltzearen aurka egiten ez badu; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu. Arrazoi teknikoak direla-eta elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, Leioako Udalak izapideak egiteko behar diren datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu. Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikulua adierazten duen bezala, administrazioek lankidetzan jardun behar dute datu-trukearen inguruan, eta haien esku dauden herritarrei buruzko datuak eman behar dituzte.	El Ayuntamiento de Leioa, mediante los sistemas de Intermediación de datos disponibles, va a realizar las comprobaciones y consultas necesarias de los datos de las personas interesadas que obren en poder de la Administración, así como cualquier otra requerida para la tramitación administrativa de la subvención, de acuerdo lo señalado en los formularios al efecto. El fundamento para la intermediación de datos entre las Administraciones Públicas se concreta en el artículo 6 del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas y en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, donde se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que ya se encuentren en poder de la Administración actuante o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración, así como la demás legislación aplicable. Es por ello por lo que se dejarán de solicitar documentos o certificados que contengan datos que puedan ser interoperables, siempre y cuando la persona interesada [o su representante] no se oponga al uso de los mismos, en cuyo caso, deberá aportar los datos o documentos correspondientes. Si por causas técnicas la interoperabilidad no fuera posible el Ayuntamiento de Leioa podrá requerir datos o documentos necesarios para la tramitación. Asimismo, existe el deber de las Administraciones de colaborar, tal y como indica el Artículo 155 de la Ley 40/2015 en el entorno de la Intercambio de datos, debiendo facilitar los datos relativos de la ciudadanía que obren en poder de estas.
Ofizioz, honako betekizun/informazio hauek	De oficio se verificará y/o incorporará al expediente,

egiaztatu eta/edo sartuko dira espedientean, interesdunak berariaz aurka egiten ez badu: • Pertsona fisiko edo juridikoaren identifikazioa. • Laguntza eskatzen den ikastaroaren edo ikastaroen asistentzia datuak. • Hirugarrenen fitxan adierazitako banku-kontuaren zenbakiaren titulartasuna egiaztatzea. • Ogasuna betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen justifikazioa. • Eskatzaileak, indarrean dagoen legeriaren arabera, Gizarte Segurantzarekin derrigorrezko lotura badu, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiarekin ordainketa egunean duela egiaztatzen duen justifikazioa. • Bizikidetzak-unitatearen errenta maila era honetako dirulaguntza eskatzen dutenen kasuan.	salvo manifestación expresa en contra por parte de la persona interesada, los siguientes requisitos/información: • Identificación de la persona física o jurídica • Datos de asistencia al curso o cursos por los que se solicita la ayuda. • Verificación de la titularidad del número de cuenta bancaria indicando en la ficha de terceros. • Justificación de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias. • Justificación de estar al corriente del pago con la Tesorería General Seguridad Social, en el caso de que la solicitante, de acuerdo con la legislación vigente, tuviera relación obligacional con la Seguridad Social. • Nivel de renta de la unidad convivencial en el caso de las personas solicitantes de este tipo de ayuda.
Dirulaguntza jasotzeko eskaera aurkeztu bada, aldi berean, beste erakunde publiko edo pribatu baten, Leioako Udalaren aurrean aurkeztzen denak hori beren-beregi zehaztu beharko du, aipatuz zein erakunde edo erakundeei eskatu zaien eta eskatutako, edo hala badagokio, jasotako zenbateko zehatzak.	En el caso de haberse presentado paralelamente solicitud de subvención para la misma actividad ante cualquier otro organismo, público o privado, la solicitud ante el Ayuntamiento de Leioa deberá incluir manifestación expresa en tal sentido, con indicación de la institución o instituciones ante las que se haya presentado solicitud de financiación, así como con expresión de la cuantía solicitada o, en su caso, recibida.
Kasuan kasuko berezitasunak aintzat harturik, Udalak eskatzaileari eska diezaioke egoki deritzon edozein agiri osagarri, proiektua bere osotasunean baloratze aldera	El Ayuntamiento podrá, en atención a cada caso concreto, requerir a la persona solicitante cualquier otra documentación complementaria que considere oportuna a los efectos de la valoración de conjunto del proyecto presentado.
<i>Eskabideak baztertzea:</i>	<i>Exclusión de solicitudes:</i>
Epez kanpo aurkeztutako eskabideak ez dira aintzat hartuko, eta, ondorioz, gaitzetsiko dira.	No se tendrán en cuenta y, en consecuencia se desestimarán, aquellas solicitudes formuladas fuera de plazo.
<i>Osorik ez dauden edo akastunak diren eskabideak:</i>	<i>Solicitudes incompletas o defectuosas:</i>
Aurkeztutako eskabidea edo erantsitako dokumentazioa osorik ez balego edo konpon daitekeen akatsik baleuka, eskatzaileari esango zaio 10 lan eguneko gehieneko epean konpontzeko, jakinarazpen hori egin eta biharamunetik zenbatzen hasita. Jakinaraziko zaio, halaber, horrela egin ezean	En el caso de que la solicitud presentada o la documentación adjuntada sea incompleta o adolezca de algún otro defecto subsanable, se requerirá al solicitante para que proceda a su subsanación en el plazo máximo de 10 días hábiles, a contar desde el siguiente a la notificación del requerimiento, indicándole que de no hacerlo así, se le tendrá por

eskabidea bertan behera geratuko dela.	desistido de su solicitud.
<i>Epea:</i>	<i>Plazo:</i>
Eskabideak aurkezteko bi epe ezarriko dira: bata arrunta, urritik ekainerako ikastaroetarako, eta bestea apartekoa, udako ikastaroetarako. a) Epe arrunta 2023ko ekainaren 1etik uztailaren 7ra izango da. b) Udako ikastaroei soilik dagokien epea 2023ko irailaren 29tik urriaren 13ra izango da.	Se establecerán dos plazos para presentar solicitudes: uno, ordinario, para los cursos de octubre a junio y otro, extraordinario, para los cursos de verano: a) El plazo ordinario será entre los días 1 de junio de y el 7 de julio de 2023. b) Y el correspondiente exclusivamente a los cursos de verano será entre el 29 de septiembre y el 13 de octubre de 2023.
Eskabideak aipatutako epeetatik kanpo aurkeztuz gero, ezetsi egingo dira beste izapiderik gabe.	La presentación de las solicitudes fuera de los plazos mencionados dará lugar a la desestimación de las mismas sin más trámite.
4. artikulua.- DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA	Artículo 4.- CUANTÍA DE LA SUBVENCIÓN
Gehienez 23.050,00 € banatuko dira eskatzaileen artean, 00900 33501 4800200 aurrekontu-aplikazioaren kontura	La cantidad máxima a distribuir entre las personas solicitantes será 23.050,00 €, realizándose el gasto con cargo a la aplicación presupuestaria 900 33501 4800200.
Zenbateko hau 2021-2024ko Leioako Udaleko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasotzen da	Dicha cantidad aparece recogida en el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Leioa 2021-2024.
5. artikulua.- EMAKIDARAKO PROZEDURA:	Artículo 5.- PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN:
Dirulaguntza hauen emakida prozedura norgehiagokaren bidezkoa da.	El procedimiento de concesión de las presentes subvenciones es el de concurrencia competitiva.
6. artikulua.- DIRULAGUNTZA EMATEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:	Artículo 6.- CRITERIOS OBJETIVOS DE OTORGAMIENTO DE LA SUBVENCIÓN:
- Laguntzaren gehienezko zenbatekoa, laguntza motaren arabera izango da: - Oinarritzko laguntza, Leioan erroldatutakoentzat, matrikula kostuaren %60raino. - Familia unitateak dirusarrera urriak izateagatik eskatzen dutenen kasuan ikastaroaren matrikula kostuaren %100eraino. - Diruz laguntzeko onartuko den gehieneko kostua izango da 1,87 €/orduak aurrez aurreko ikastaroetan eta 3,30 €/orduak autoikaskuntzaoketan. - Dirulaguntza honelako hurrenkeran banatuko da: - Lehenengo eta behin, bizikidetza unitateak dirusarrera urriak izateagatik eskatzen	- La cuantía máxima de la ayuda dependerá del colectivo a que se pertenezca: - Ayuda básica para los empadronados en Leioa, hasta el 60% del coste de la matrícula. - Hasta el 100% del coste de la matrícula en el caso de los solicitantes por motivo de ingresos familiares insuficientes. - Se establece como coste máximo a subvencionar 1,87 €/hora para cursos presenciales y 3,30 €/hora para autoaprendizaje. - La ayuda se repartirá en el siguiente orden: - En primer lugar, se procederá al abono de hasta el 100% del coste de la matrícula a las personas solicitantes por ingresos de la unidad convivencial. En caso de que el

duteneen artean banatuko da, matrikula kostuaren %100eraino. Diru kopurua helduko ez balitz, hainbanaketara joko litzateke. b) Bigarrenenez, eta dirurik balego, gainerako eskatzaileen artean banatuko da %60raino. Diru nahikorik ez balego, hainbanaketara joko litzateke. c) Hirugarrenez eta azkenik eta dirurik balego, 2023ko udako ikastaroen dirulaguntzak ordainduko dira, a) eta b) puntuetan jarritako hurrenkeraren arabera. 4. Barnetegiaren kasuan, laguntzaren barruan soilik hartuko dira kontuan eskolei dagozkien gastuak. 5. Dirulaguntza hauek ez dira metagarriak, hala ere, kolektibo ezberdinen partaide gisa eskatu ahal dira eta kopuru handienarena ordainduko da. 6. Laguntza hori beste erakunde batzuek xede berbererako ematen dituztenekin bateragarria izango da, baldin eta diruz lagundutako jardueraren behar baino gehiagoko finantzaketarik ez badago. Horrelakorik egonez gero, jaso beharreko laguntza gutxituko da egokia den zenbatekora arte, emandako laguntzak diruz lagundutako kostuan egiten duen ehunekoaren proportzioan; aldea ez da ordainduko, eta gehiegizkoa itzuli beharko da.	crédito disponible no resultara suficiente, se procedería al prorrateo del mismo entre las personas solicitantes por este motivo. b) En segundo lugar, y en caso de que haya crédito disponible, se procederá al abono de hasta el 60% del coste de la matrícula entre el resto de las personas solicitantes. En caso de que el crédito disponible no resultara suficiente, se procedería al prorrateo del mismo entre las personas solicitantes por este motivo. c) En tercer y último lugar, y en caso de que haya crédito disponible, se procederá al abono de las ayudas correspondientes a los cursos de verano de 2023, según el orden marcado en los apartados a) y b) de este punto. 4. En el caso de los internados únicamente se tendrá en cuenta para estas ayudas el importe de las clases. 5. Estas ayudas no serán acumulables. Aun así, podrán solicitarse las ayudas por más de un concepto, pero solo se abonará la de mayor cuantía. 6. La percepción de esta ayuda será compatible con cualesquiera otras que pudieran ser concedidas por otras entidades para el mismo fin, siempre que no exista sobrefinanciación de la actividad subvencionada. En tal caso, la ayuda a percibir se reducirá hasta la cantidad que proceda en proporción al porcentaje de la ayuda concedida sobre el coste de la actividad subvencionada, no procediendo al pago de la diferencia y, en su caso, devolviéndose el exceso.
7. artikulua.- INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA	Artículo 7.- INSTRUCCIÓN Y RESOLUCIÓN:
Instrukzio organoa Euskara Zerbitzuko teknikaria den udal langilea izango da.	El órgano instructor será la persona empleada municipal que desempeña la labor de técnico del Servicio de Euskera
Eskabideak Alkatetza Dekretu bidez ebatziko dira Kultura eta Gazteria Saileko zuzendariaren proposamenez, Kirol eta Gazteria Informazio Batzordeari eta Tokiko Gobernu-Batzarrari jakinaraziko zaie.	Las solicitudes serán resueltas mediante Decreto de Alcaldía a propuesta del órgano instructor.
Deialdi honek arautzen dituen dirulaguntzak eman ahal izateko, erabakitze momentuan aurrekontu eta kreditu nahikoa eta egokia eduki beharko da.	La concesión de subvenciones regulada por esta convocatoria quedará en cualquier caso condicionada a la existencia de disponibilidad presupuestaria y crédito adecuado y suficiente en el momento de la resolución de concesión.
Aurretiaz Leioako Udalaren dirulaguntzak lortu izana	Las ayudas obtenidas del Ayuntamiento de Leioa con

ez die eskatzaileei inolaz ere aldeko eskubiderik ematen, eta ez dira aintzat hartuko modu horretako aurrekariak emakida berrien kasuan.	anterioridad no crean derecho alguno a favor de las personas peticionarias y no se tendrán en cuenta los precedentes en tal sentido como criterio determinante para una nueva concesión.
Interesatuei jakinarazpena egiteko epea 10 egunekoa izango da, ebazpena egiten den egunetik aurrera. Jakinarazpena horretarako jakinarazitako posta elektroniko bidez bidaliko da.	El plazo de notificación a las personas interesadas será de 10 días a partir de la resolución. La notificación se realizará por correo electrónico indicado a tales efectos por el solicitante.
Epea igarota, ez balego eskaerari legokiokkeen beren-beregiko ebazpenik, ukatutzat emango da, aurrerago beren-beregi ebatz litekeen arren.	En el caso de que transcurrido dicho plazo no conste resolución expresa de la solicitud, se entenderá que la misma ha sido denegada, sin perjuicio de que con posterioridad sea resuelta de forma expresa.
Leioako Udalak behar den moduan emango du jakitera espedientearen jasotako informazioa, aplikatu beharreko araudiarekin bat etorritz.	El Ayuntamiento de Leioa dará la debida publicidad a la información contenida en el expediente de acuerdo con la normativa de aplicación.
8. artikulua.- ONURADUNEN OBLIGAZIOAK:	Artículo 8.- OBLIGACIONES DE LAS PERSONAS BENEFICIARIAS:
Deialdi honetako dirulaguntzen pertsona edo entitate onuradunek honako obligazio hauek bete behar dituzte:	Las personas o entidades beneficiarias de las subvenciones objeto de la presente convocatoria deberán cumplir con las siguientes obligaciones:
a) Dirulaguntzak ematea arautzen duen Udal Ordenantzak zehazten dituen arauak behar bezala bete, baita dirulaguntza emateko ebazpenak ezar litzakeen baldintza zehatzak ere, batez ere Leioako bizilagunen ongizatean eragin zuzena duten gaiei dagokienez.	a) Cumplir debidamente con las normas establecidas en la Ordenanza Municipal Reguladora de Subvenciones del Ayuntamiento de Leioa, así como las condiciones particulares que pudieran establecerse en la resolución por la que se conceda la subvención, en especial aquellas referidas a cuestiones que incidan directamente en el bienestar de los/as leioztarras.
b) Emandako dirulaguntza onartu. Emakida jakinarazten den egunetik aurrera, zazpi eguneko epean, pertsona edo entitate onuradunek ez badiote beren-beregi eta idatziz dirulaguntzari uko egiten, onartutzat joko da.	b) Aceptar la subvención concedida. Si en el plazo de siete días, a contar desde la fecha de notificación de la concesión, las personas o entidades beneficiarias no renuncian expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ha sido aceptada.
c) Dirulaguntza erabili eskatu zen helburu zehatzerako.	c) Dar a la subvención concedida el concreto destino para el que fue solicitada.
d) Udalak eskatzen duen kolaborazioari erantzun –bereziki, euskararen erabilerari dagokionez– diruz lagundutako aktibitatea edo ekitaldia hobeto garatze aldera. Kontrako erantzunik	d) Prestar toda la colaboración que desde el Ayuntamiento sea requerida –con especial atención a la implantación del uso del euskara– para un mejor desarrollo de la

jasoz gero, eskabidea artxiba daiteke, edo hala badagokio, emandako dirulaguntza itzultzeko obligazioa, egoki liratekeen zigorrak ezartzeaz gain.	actividad o evento subvencionados. La negativa en éste sentido podrá suponer el archivo de la petición formulada, o en su caso la extinción y obligación de reintegro de la subvención ya concedida, así como la imposición de las sanciones que en su caso procedan.
e) Helburu berbererako jaso den edozein dirulaguntza jakinarazi, publikoa ala pribatua, eta betiere, jasotako zenbatekoa adierazi.	e) Comunicar la obtención de cualquier otra ayuda económica para el mismo fin, sea su procedencia bien pública o bien privada con indicación expresa en todo caso de la cuantía recibida.
f) Leioako Udalarekin kolaboratu, eskatuz gero, ikerketa, inkesta edo estatistikak lantzeko edota lan-taldeetan parte hartzeko.	f) Colaborar con el Ayuntamiento de Leioa, en caso de ser requerida, para la eventual elaboración de estudios, encuestas, o estadísticas, así como la participación en grupos de trabajo.
g) Udalak egin ditzakeen egiaztapen guztiei men egin.	g) Someterse a cuantas actuaciones de comprobación efectúe el Ayuntamiento.
h) Jasotako dirua itzuli (azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 37. artikuluan zehazten dituen itzulketarako kasuren bat ematen bada).	h) Proceder al reintegro de los fondos percibidos (en caso de incurrir en alguna de las causas de reintegro contempladas en el artículo 37 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones)
9. artikulua.- BATERAGARRITASUNA.	Artículo 9.- COMPATIBILIDAD
Dirulaguntza hauek deituta edo dei daitezkeen beste dirulaguntza batzuekin bateragarriak dira, betiere jasotako dirulaguntza guztien batuketak ez badu aurkeztutako aurrekontua gainditzen. Egoera horretan, dagokion zenbatekoan gutxituko da deialdi honen bitartez emandako dirulaguntzaren zenbatekoa.	Estas subvenciones son compatibles con cualesquiera otras convocadas o que se convoquen, siempre que del conjunto de las que se reciban por la actividad objeto de las mismas no se produzca sobrefinanciación respecto del presupuesto sobre el que hayan sido concedidas. Ante tal supuesto, se reducirá en la cantidad correspondiente al exceso del importe de la ayuda concedida en virtud de la presente convocatoria.
10. artikulua.- DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA.	Artículo 10.- PAGO DE LA SUBVENCIÓN.
Dirulaguntzak ordainketa bakarrean emango dira:	El abono de las subvenciones se realizará en un único pago.
11. artikulua.- EBAZPENA ALDATZEA.	Artículo 11.- MODIFICACIÓN DE LA RESOLUCIÓN.
Dirulaguntza emateko aintzat hartu diren irizpideen gaineko edozein aldaketak, betiere dirulaguntzaren	Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se

xedea bete dela ulertzen bada, dirulaguntzak emateko ebazpena aldatzea ekar dezake.	entienda cumplido el objetivo de ésta, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión de subvenciones.
12. artikulua.- DIRULAGUNTZA ITZULTZEA: 1.- Jasotako laguntza Udal Diru-kutxara itzuli behar izatea gerta liteke, dirulaguntza ordaindu zenetik eta itzulketaren bidez kotasuna erabaki bitarteko epeari legozkiokeen atzerapen interesak barne, honako kasuren bat jazoko balitz:	Artículo 12.- REINTEGRO DE LA SUBVENCIÓN: 1.- Procederá el reintegro a las Arcas Municipales de la ayuda recibida, con los intereses de demora correspondientes desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en la que se acuerde la procedencia del reintegro, cuando se dé alguno de los supuestos siguientes:
a) Emandako zenbatekoa eskatutako xederako ez erabiltzea.	a) No destinar la cuantía concedida a la finalidad concreta para la que se solicitó.
b) Dirulaguntza jaso izana horretarako beharrezkoak ziren baldintza guztiak bete barik.	b) Haber obtenido la subvención sin reunir las condiciones requeridas para ello.
c) Onuradunari leporagarriak diren arrazoiak direla-eta, deialdi honetako 8. artikuluan onartutako obligazioekin ez betetzea.	c) El incumplimiento, por razones imputables a la persona beneficiaria, de las obligaciones asumidas en el artículo 8 de la presente convocatoria.
d) Aktibitatearen kostu errealari erreparatuz, gehiegizko finantzazioa. Kasu horretan, soberakina itzuli beharko da.	d) El exceso de financiación con relación al coste real de la actividad, en cuyo caso habrá de reintegrarse la suma remanente.
e) Bestelako erakunde publiko edo pribatuek emandako dirulaguntza guztien batuketaren ondoriozko gehiegizko finantzazioa. Hala balitz, onuradunak Leioako Udalak emandako zenbatekoa itzuli beharko luke, Udalaren ekarpenarekiko proportzionala, finantzatutako zenbateko osoarekin alderatuz.	e) La sobrefinanciación por concurrencia con otras subvenciones o ayudas de otras instituciones, públicas o privadas, en cuyo caso la beneficiaria tendrá la obligación de reintegro de la cuantía concedida por el Ayuntamiento de Leioa en proporción al importe aportado por éste en relación con el total financiado.
f) Aktibitatea burutzeko edo proiektua exekutatzeko moduari erreferentzia egiten dioten eta dirulaguntza ematen duen ebazpenean onuradunari ezarritako baldintza edo obligazioekin ez betetzea. Kasu horretan, hausteen larritasuna baloratuko da itzuli beharreko zenbatekoa erabakitzeko, ekitate eta proportzionaltasun printzipioak aintzat harturik.	f) El incumplimiento de las condiciones u obligaciones impuestas a las personas beneficiarias en la resolución por la que se concediera la subvención, referentes al modo de realización de la actividad o ejecución del proyecto. En este caso, se tendrá en cuenta la gravedad de los incumplimientos cometidos para determinar la cuantía a reintegrar, atendiendo a los principios de equidad y proporcionalidad.
2.- Guztira edo zati baten itzuli beharreko zenbatekoa erabakitzeko, proportzionaltasun eta ekitate printzipioen arabera egingo da. Horretarako, kasu konkretu bakoitzeko ezaugarriei erreparatuko zaie.	2.- Para la determinación de la cuantía a reintegrar, total o parcialmente, se atenderá en cualquier caso a los principios de proporcionalidad y equidad, para lo cual se estará a las circunstancias de cada caso concreto.
3.- Diru-itzulketa exijitzen duen ebazpena Alkatetzak	3.- La resolución por la que se exija el reintegro se

emango du.	dictará por la Alcaldía.
4.- Dirulaguntzen Lege Orokorreko II. Kapitulu II. Tituluarekin ados, administrazio prozedura erkidearen araudiak diotenaren mende egongo da itzulketa-espediente. Espediente horretan, audientzia tramitea emango zaio interesdunari 15 egunez.	4.- De conformidad con el capítulo II del Título II de la Ley General de Subvenciones, el expediente de reintegro se ajustará a las normas de procedimiento establecidas en la normativa de procedimiento administrativo común y en el mismo se dará trámite de audiencia a la persona interesada por el plazo de 15 días hábiles.
5.- Dirulaguntza itzultzeko obligazioa egiaztatuta, organo eskudunak ebazpena emango du betekizun hori aitortzeko. Ebazpenean dirua itzultzeko beharra eragiten duen arrazoa, itzuli behar den zenbatekoa eta diru-sarrera egiteko epe boluntarioa beren-beregi aipatu behar dira. Halaber, ohartaraziko da, itzulketa epe barruan egin ezean, premiamendu bidez egingo dela.	5.- Verificada la obligación de devolución de la subvención, el órgano competente dictará resolución declarando tal deber. Dicha resolución será motivada, con indicación expresa de la causa que origina el deber de reintegro, así como la cuantía que ha de devolverse y plazo voluntario de ingreso, con advertencia de que, caso de no efectuar el reintegro en el plazo previsto, se procederá por la vía de apremio.
Azken xedapena.	Disposición Final.
Dirulaguntzen deialdi honek aurreikusten ez dituen kasuetarako, honako lege eta araudiak aplikatuko dira: azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra; azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; eta Leioako Udalak ematen dituen Dirulaguntzen Oinarri Arautzaileak onartzen dituen Ordenantza Orokorra.	En lo no previsto en esta convocatoria de subvenciones será de aplicación la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, así como la Ordenanza General por la que se aprueban las Bases Reguladoras de las Subvenciones que se concedan por el Ayuntamiento de Leioa.

I ERANSKINA

Diru-laguntza jasotzeko familia unitatearen gehieneko diru-sarrerak	
Ingresos máximos de la unidad familiar para la percepción de la ayuda económica	
Familia unitatearen kide-kopurua	Familia unitatearen diru-sarrerak -2022ko Zerga oinarri orokorra
Nº de miembros unidad	Ingresos dinerarios de la unidad familiar –

familiar	Base imponible general 2022
1	16.061,73 €
2	27.417,39 €
3	37.215,20 €
4	44.196,30 €
5	49.398,54 €
6	53.326,76 €
7	57.211,65 €
8	61.079,21 €
9	64.938,09 €
10	68.796,99 €

Alkateak, horrela agindu eta izenpetu du
Idazkariak kontuan hartu du, Ebazpen liburuan
transkribatzeko,

Así lo mandó y firmó el Sr. Alcalde,
Tomado en razón por la Secretaria para la
transcripción al libro de resoluciones,